


6 mantangorri

IRAKURRI, ETA ONDO PASATU!



LIBURUA

'Mozoloaren bakardadea'

Lumarik ez zuela eta, itsusia sentitzen zen mozoloa. Horregatik, bere habian babes-ten zen, eta ez zen beste txoriekin egoten. Gauz irteten zen soilik habiatik, eta egun-sentiarekin batera, itzultzen zen. Goiz batean, okilaren bisita izan zuen, eta mozoloak bere arazoa kontatu zion. Laster konpondu zuten: basoko txoriek luma bana eman zioten mozoloari. Habiatik irteten hasi zen mozoloa, eta erabat harrotuta zebilen.

Juan Luis Zabala
Begoña Durruty
Argitaletxea: **Erein**




LIBURUA

'Maite zaitut!'

Aitona Anakleto karabanarekin iritsi da Pirritx, Porrotx eta Marimototsengana. Ez karabanarekin bakarrik, ordea, ezusteko berezi bat dakar: hartz kume txiki bat. Pirinioetako azken hartza hil egin da, eta kumea bakar-bakarrik geratu da basoan. Hori jakitean, Anakletok harekin hartu du hartz txikia; nekez pasako zuen neña, bestela. Hartza zaintzeko laguntza eske etorri zaie Anakleto pailazoei, eta pozez hartu dute egitekoa.

Mitxel Murua
Julen Tokero
Argitaletxea: **Elkar**

DENBORA-PASAK



Ea zenbat hitz osatzen dituzun.

1. Osatu hitzak

Hizki magikoak dantzan jarri ditu berriro ere Nasrudimek. **Saskitik atera diren hizkiekin hitzak osatzea da zure lana.**

2. Hitzak atzekoz aurrera

Txukun idatziak zituen hitzak hankaz gora jarri zaizkio Josebari. **Nola idazten dira ezkerreko hitzak atzekoz aurrera?**

| | | |
|---|-----------|-----------|
| 1 | aizto | edesem |
| 2 | mesede | ulegna |
| 3 | garraio | ikib |
| 4 | biki | irakzidla |
| 5 | angelu | otzia |
| 6 | aldizkari | oiarrag |